



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**

# **URTEKO KONTUAK ETA PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA**

**2018**

**2019ko otsailaren 22a**





## **Aurkibidea:**

## **Orrialdea**

1	BALANTZEA .....	4
2	ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA.....	5
3	ONDARE GORDINAREN ALDAKETA-EGOERA .....	6
3.1	<i>Ondare gordinean dauden aldaketen egoera guztira .....</i>	<i>6</i>
3.2	<i>Aintzatesitako sarrera eta gastuen egoera-orria.....</i>	<i>6</i>
4	DIRU-FLUXUAREN EGOERA.....	7
5	AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA.....	8
5.1	<i>Gastu aurrekontuaren likidazioa .....</i>	<i>9</i>
5.2	<i>Sarrera-aurrekontuaren likidazioa .....</i>	<i>10</i>
5.3	<i>Aurrekontu-emaizta .....</i>	<i>10</i>
6	MEMORIA.....	11
6.1	<i>Antolakuntza eta jarduera .....</i>	<i>11</i>
6.2	<i>Kontuak aurkezteko oinarriak .....</i>	<i>13</i>
6.3	<i>Aintzatespen- eta balioespen-arauak.....</i>	<i>14</i>
6.4	<i>Ibilgetu ukiezina.....</i>	<i>15</i>
6.5	<i>Ibilgetu materiala .....</i>	<i>15</i>
6.6	<i>Transferentziak, diru-laguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk .....</i>	<i>16</i>
6.6.1	<i>Transferentziak eta sarrerak .....</i>	<i>16</i>
6.6.2	<i>Diru-laguntzak eta beste gastu batzuk .....</i>	<i>16</i>
6.7	<i>Aurrekontuz kanpoko eragiketak .....</i>	<i>17</i>
6.7	<i>Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak.....</i>	<i>17</i>
6.8	<i>Administrazio kontratazioa. Esleipen prozedurak .....</i>	<i>17</i>
6.9	<i>Aurrekontu-informazioa.....</i>	<i>17</i>
6.9.1	<i>Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa .....</i>	<i>17</i>
6.9.2	<i>Diruzaintza-kontua .....</i>	<i>18</i>
6.10	<i>Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak.....</i>	<i>20</i>
6.11	<i>Ekonomia- eta ondare-emaizta eta aurrekontuaren emaitza uztartzea.....</i>	<i>21</i>
7	PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA .....	22
7.1.1	<i>DBEBren jarduerak .....</i>	<i>22</i>
7.1.2	<i>Legez araututako ahalak baliatzeko ohiko jarduerak.....</i>	<i>23</i>
7.1.3	<i>Datu babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak.....</i>	<i>24</i>
7.1.4	<i>2018an burututako jarduera aipagarrienak .....</i>	<i>24</i>



# 1 BALANTZEA

AKTIBOA	OHARRAK MEMORIA	Ekitaldia 2018	Ekitaldia 2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRAK MEMORIA	Ekitaldia 2018	Ekitaldia 2017
<b>A) Aktibo ez arrunta</b>		<b>43.624,76</b>	<b>43.916,89</b>	<b>A) Ondare garbia</b>		<b>3.619.790,19</b>	<b>3.523.585,52</b>
<b>I) Ibilgetu ukiezina</b>		<b>28.033,28</b>	<b>23.575,65</b>	<b>II) Sortutako ondarea</b>		<b>3.619.790,19</b>	<b>3.523.585,52</b>
3. Aplikazio informatikoak	6.4	28.033,28	23.575,65	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak		3.522.955,52	3.613.346,69
				2. Ekitaldiko emaitza		96.834,67	(-89.761,17)
<b>II) Ibilgetu materiala</b>		<b>15.591,48</b>	<b>20.341,24</b>				
5. Bestelako ibilgetu materiala	6.5	15.591,48	20.341,24				
<b>B) Aktibo arrunta</b>		<b>3.692.201,16</b>	<b>3.603.647,91</b>	<b>C) Pasibo arrunta</b>		<b>116.035,73</b>	<b>123.979,28</b>
<b>III) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk</b>		<b>350,00</b>	<b>2.143,00</b>	<b>IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk</b>		<b>116.035,73</b>	<b>123.979,28</b>
1. Gestio-eragiketengatik zordunak			1.590,00	1. Gestio-eragiketengatik hartzekodunak		39.603,64	55.987,54
2. Kobratu beharreko beste kontu batzuk		350,00	553,00	3. Administrazio publikoak	6.7.1	76.432,09	67.991,74
<b>VII) Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk</b>		<b>3.691.851,16</b>	<b>3.601.504,91</b>				
2. Diruzaintza	6.9.2	3.691.851,16	3.601.504,91				
<b>AKTIBOA GUZTIRA (A+B)</b>		<b>3.735.825,92</b>	<b>3.647.564,80</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+C)</b>		<b>3.735.825,92</b>	<b>3.647.564,80</b>



## 2 ONDARE-EMAITZAREN ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

	Ekitaldia 2018	Ekitaldia 2017
<b>2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>1.604.623,00</b>	<b>1.365.012,00</b>
a) Ekitaldikoak	1.604.623,00	1.365.012,00
a.2) Transferentziak	1.604.623,00	1.365.012,00
<b>3. Salmentak eta zerbitzu ematea</b>		
b) Zerbitzua ematea		
<b>6. Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk</b>	<b>2.336,00</b>	<b>1.590,00</b>
<b>A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>1.366.602,00</b>
<b>8. Langileen gastuak</b>	<b>(-1.109.625,18)</b>	<b>(-1.072.268,16)</b>
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	(-900.497,40)	(-887.173,32)
b) Gizarte kargak	(-209.127,78)	(-185.094,84)
<b>9. Emandako transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>(-3.500,00)</b>	
<b>11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>	<b>(-384.876,68)</b>	<b>(-377.434,36)</b>
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	(-384.876,68)	(-377.434,36)
<b>12. Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>(-12.122,47)</b>	<b>(-6.660,65)</b>
<b>B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)</b>	<b>(-1.510.124,33)</b>	<b>(-1.456.363,17)</b>
<b>I Kudeaketa Arruntaren Emaitza (Aurrezkiak edo Desaurrezkiak) (A+B)</b>	<b>96.834,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>
<b>II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza</b>	<b>96.834,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>
<b>III. Eragiketa finantzarioen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)</b>		
<b>IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezki eta desaurrezki) garbia (II + III)</b>	<b>96.834,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>



### 3 ONDARE GORDINAREN ALDAKETA-EGOERA

#### 3.1 Ondare gordinean dauden aldaketen egoera guztira

	II. Sortutako ondarea 2.018	II. Sortutako ondarea 2017
<b>A. ONDARE GARBIA AURREKO EKITALDIAREN BUKAERAN</b>	<b>3.523.585,52</b>	<b>3.613.346,69</b>
<b>B. DOIKUNTZAK ERROREEN ZUZENKETENGATIK ETA KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETENGATIK</b>		
<b>C. EKITALDIKO HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUTA (A+B)</b>	<b>3.523.585,52</b>	<b>3.613.346,69</b>
<b>D. EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK</b>	<b>96.204,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>
1. Ekitaldian onartutako gastuak eta sarrerak	96.834,67	(-89.761,17)
3. Ondare garbiaren bestelako aldaketak	(-630,00)	
<b>A. ONDARE GARBIA EKITALDIAREN BUKAERAN (C+D)</b>	<b>3.619.790,19</b>	<b>3.523.585,52</b>

#### 3.2 Aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orria

	2018	2017
<b>I. Ondarearen emaitza ekonomikoa</b>	<b>96.834,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>
<b>II. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak</b>		
<b>III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partiden hasierako baliora egindako transferentziak</b>		
<b>IV. Onartutako sarrerak eta gastuak GUZTIRA (I + II + III)</b>	<b>96.834,67</b>	<b>(-89.761,17)</b>



#### 4 DIRU-FLUXUAREN EGOERA

	2018	2017
<b>I. KUDEAKETA-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK</b>		
<b>A) Kobrantzak:</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>1.365.012,00</b>
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	1.604.623,00	1.365.012,00
6. Beste kobrantza batzuk	3.296,00	
<b>B) Ordainketak:</b>	<b>(- 1.497.766,44)</b>	<b>(-1.433.735,24)</b>
8. Langileen gastuak	(- 1.108.001,06)	(-1.071.517,65)
11. Kudeaketako beste gastu batzuk	(- 389.765,38)	(-362.217,59)
<b>Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbia (+A-B)</b>	<b>110.152,56</b>	<b>(-68.723,24)</b>
<b>II. INBERTSIO-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK</b>		
<b>D) Ordainketak:</b>	<b>(- 19.806,31)</b>	<b>(-16.416,68)</b>
4. Benetako inbertsioak erostea	(- 19.806,31)	(-16.416,68)
<b>Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbia (+C-D)</b>	<b>(- 19.806,31)</b>	<b>(-16.416,68)</b>
<b>III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK</b>		
<b>IV. TRUKE-TASEN ALDAKETEN ERAGINA</b>		
<b>V. DIRUAREN ETA DIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA ( I + II + III + IV)</b>	<b>90.346,25</b>	<b>(-85.139,92)</b>
Ekitaldiaren hasierako diruaren baliokide diren aktibo likidoak eta eskudirua	3.601.504,91	3.686.644,83
Ekitaldiaren bukaerako diruaren baliokide diren aktibo likidoak eta eskudirua	3.691.851,16	3.601.504,91



## **5 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA**

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua xedatzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen menpe dagoela, bere aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Araubideari buruz indarrean dauden legez xedapenen Testu Bategina onetsi zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren VIII. tituluan dago araututa aurrekontuen likidazioa.

Azkenik, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana onartzen du; eta planak honakoak jasotzen ditu besteak beste: urteko kontuak egiteko arauak eta kontuak egiteko dokumentu ereduak, memoriaren edukia barne.





## 5.1 Gastu aurrekontuaren likidazioa

APLIKAZIOEN IZENA	AURREKONTU KREDITUAK							Obligazio aitortuak 2017
	Hasierako kredituak	Aldaketak	Kredituak guztira	Obligazio onartuak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera	
GOI-KARGUDUNEN ORDAINSARIAK	77.784,00		77.784,00	71.980,49	71.980,49		% 92,54	75.345,27
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK	63.341,00	941,46	64.282,46	63.417,42	63.417,42		% 98,65	32.760,46
FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	1.012.496,00		1.012.496,00	765.099,49	765.099,49		% 75,57	779.067,59
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	261.406,00	-941,46	260.464,54	187.133,32	171.610,79	15.522,53	% 71,85	176.928,26
PENTSIEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK	12.000,00		12.000,00	9.005,07	7.794,79	1.210,28	% 75,04	
PRESTAKUNTZA	8.728,00		8.728,00	1.377,50	1.377,50		% 15,78	2.281,84
GIZARTEKINTZA		4.700,00	4.700,00	4.700,00	4.700,00		% 100,00	
ASEGURUAK	7.500,00		7.500,00	6.911,89	6.911,89		% 92,16	5.884,74
ERAIKINAK	1.000,00		1.000,00					
TRESNERIA				22,9	22,9			162,20
ALTZARIAK	6.041,00		6.041,00	9.789,09	7.359,03	2.430,06	% 162,04	8.468,88
ZERBITZU PROFESIONAL INDEPENDIENTEAK	33.033,00		33.033,00	22.892,80	22.892,80		% 69,30	24.231,46
ABOKATUAK, PROKURADOREAK ETA KOSTU JUDIZIALAK				1.209,60	1.209,60			284,15
ERAKUNDE KOMUNIKAZIOA	20.894,00		20.894,00					4.477,00
PROTOKOLO ARRETA	6.000,00		6.000,00					745,00
BULEGOKO MATERIALA	8.000,00		8.000,00	1.599,08	1.599,08		% 19,99	4.312,13
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	7.802,00		7.802,00	11.851,92	11.717,62	134,3	% 151,91	11.430,21
LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK	20.922,00		20.922,00	20.837,30	19.877,41	959,89	% 99,60	23.179,06
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	12.000,00		12.000,00	7.064,17	6.981,97	82,2	% 58,87	2.547,18
MEZULARITZA	290		290	964,75	964,75		% 332,67	226,34
APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAKETA	8.100,00		8.100,00	17.136,93	17.136,93		% 211,57	8.768,09
KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK	320.623,00		320.623,00					
IVAP/HAEE. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK				1.006,42	1.006,42			1.156,29
EJIE. Lokalen alokairua Kanpoko beste zerb. batzuk - EAEko erak.				170.683,68	170.683,68			166.515,36
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak				9.060,76	8.289,96	770,8		8.359,69
EJIE. Aplik. informatik. manten. eta ustiaketa. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak				89.717,80	74.724,22	14.993,58		88.814,62
ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA	5.388,00		5.388,00	5.787,15	5.787,15		% 107,41	12.131,20
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	20.235,00		20.235,00	7.577,21	7.577,21		% 37,45	4.765,83
BESTE ZERBITZU BATZUK	9.364,00		9.364,00	7.675,12	7.675,12		% 81,96	6.859,67
IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK	9.000,00		9.000,00	3.500,00		3.500,00	% 38,89	
<b>Eragiketa arruntak guztira</b>	<b>1.931.947,00</b>	<b>4.700,00</b>	<b>1.936.647,00</b>	<b>1.498.001,86</b>	<b>1.458.398,22</b>	<b>39.603,64</b>	<b>% 77,35</b>	<b>1.449.702,52</b>



APLIKAZIOEN IZENA	AURREKONTU KREDITUAK 2018							Obligazio aitortuak 2017
	Hasierako kredituak	Aldaketak	Kredituak guztira	Obligazio onartuak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera	
ALTZARIAK								817,00
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	32.000,00		32.000,00	11.830,34	11.830,34		% 36,97	23.575,65
LANGILEENTZAKO KREDITUAK	4.700,00	-4.700,00						
<b>Kapital eragiketak guztira:</b>	<b>36.700,00</b>	<b>-4.700,00</b>	<b>32.000,00</b>	<b>11.830,34</b>	<b>11.830,34</b>		<b>% 36,97</b>	<b>24.392,65</b>
<b>Batuketa</b>	<b>1.968.647,00</b>		<b>1.968.647,00</b>	<b>1.509.832,20</b>	<b>1.470.228,56</b>	<b>39.603,64</b>	<b>% 76,69</b>	<b>1.474.095,17</b>

## 5.2 Sarrera-aurrekontuaren likidazioa

DESKRIBAPENA	AURREKONTU AURREIKUSPENAK			ONARTUTAKO ESKUBIDEAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	DIRU-BILKETA GARBIA	KOBRTU GABEKO OBLIGAZIOAK ABENDUAREN 31N	Gauzatzearen %	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK 2017
	HASIERAKOAK	ALDAKETAK	BEHIN BETIKOAK						
Aparteko diru sarrerak				2.336,00	2.336,00	2.336,00			1.590,00
Ondare sarrerak	1.000,00		1.000,00						
EAEko administrazio orokorretik	1.592.705,00		1.592.705,00	1.592.705,00	1.592.705,00	1.592.705,00	% 100,00		1.353.441,00
<b>Eragiketa arruntak guztira</b>	<b>1.593.705,00</b>		<b>1.593.705,00</b>	<b>1.595.041,00</b>	<b>1.595.041,00</b>	<b>1.595.041,00</b>	<b>% 100,15</b>		<b>1.355.031,00</b>
EAEko administrazio orokorretik	11.918,00		11.918,00	11.918,00	11.918,00	11.918,00	% 100,00		11.571,00
Diruzaintzaren geldikina	363.024,00		363.024,00						
<b>Kapital eragiketak guztira</b>	<b>374.942,00</b>		<b>374.942,00</b>	<b>11.918,00</b>	<b>11.918,00</b>	<b>11.918,00</b>	<b>% 3,18</b>		<b>11.571,00</b>
<b>Batuketa</b>	<b>1.968.647,00</b>		<b>1.968.647,00</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>% 81,67</b>		<b>1.366.602,00</b>

## 5.3 Aurrekontu-emaitza

KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	2017 EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA
a) Eragiketa arruntak	1.595.041,00	1.498.001,86	97.039,14	(-94.671,52)
b) Kapital eragiketak	11.918,00	11.830,34	87,66	(-12.821,65)
<b>I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (I=a+b+c+d)</b>	<b>1.606.959,00</b>	<b>1.509.832,20</b>	<b>97.126,80</b>	<b>(-107.493,17)</b>
	ONARTUTAKO ESKUBIEAK BALIOGABETZEA ITXITAKO EKITALDIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK BALIOGABETZEA ITXITAKO EKITALDIAK	AURREKONTU EMAITZAK ITXITAKO EKITALDIAK	AURREKONTU EMAITZAK ITXITAKO EKITALDIAK
a) Eragiketa arruntak	(-630,00)		(-630,00)	
b) Kapital eragiketak				
<b>II. ITXITAKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (II=a+b+c+d)</b>	<b>(-630,00)</b>		<b>(-630,00)</b>	
<b>III. AURREKONTU EMAITZA DOITUA (I + II + III)</b>	<b>1.606.329,00</b>	<b>1.509.832,20</b>	<b>96.496,80</b>	<b>(-107.493,17)</b>



## 6 MEMORIA

### 6.1 Antolakuntza eta jarduera

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (aurrerantzean Bulegoa) Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortu zuen, izaera honekin: *zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak*".

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esparruan DBEBk honako eginkizunak ditu:

- a) Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarrik gabe uzteko eskubideari dagokienez.
- b) Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea.
- c) Beharrezkoa bada, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.
- d) Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea.
- e) Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonen.
- f) Tratamenduen erantzule eta arduradunei, esateko dutena entzun eta gero, datu-tratamendua indarrean dauden legetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea, eta, beharrezkoa bada, ez badituzte lege horiek betetzen, tratamendua gelditzeko eta fitxategiak indarrik gabe uzteko agintzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan.
- g) Zehatzeko ahalmena erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, bere iritziz lege honetako 22. artikuluan tipifikaturiko arau-hausteen erantzuleak direnen aurka diziplinazko prozedura hasteko proposatzea, eta hartu beharreko zehaztutako neurriak hartzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan. Hori guztia lege honetan zehazturik dagoen moduan.
- h) Lege hau garatzeko xedapen orokorretako egitasmoen buruzko txostenak egitea, derrigor.
- i) Bere lana egiteko beharrezkoa duen laguntza eta informazio guztia eskatzea fitxategien erantzuleei.
- j) Datu pertsonalen fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea. Horretarako, urtero-urtero, fitxategi horien zerrenda bat argitaratuko du, beste hainbat informazio osagarriekin. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak erabakiko du zein informazio osagarri eman.
- k) Urteko txostena idatzi, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzara bidali.
- l) Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek estatistikako datuen bilketari buruz eta estatistikako isilpekotasunari buruz dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea, beharrezko jarraibideak ematea, estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak ematea eta 24. artikuluan aipaturiko ahalmena erabiltzea.



- m) Datu pertsonalen fitxategien segurtasuna eta herritarrek fitxategi horiei buruz dituzten eskubideak hobeto babeste aldera, Datuak Babesteko Estatuko Bulegoarekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea hartarako beharrezkoak diren jarduera guztietan.
- n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.
- ñ) Lege eta erregelamenduetan emandako beste eginkizun oro.

Zuzendaria eta Kontseilu Aholku-emailea dira Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu-organoak. Hierarkikoki zuzendariaren menpe egongo dira Estatutuaren indarrez sortzen diren Datuak Babesteko Erregistroa eta bestelako organoak eta horiek garatzen dituzten xedapenak ere bai.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ondoko legezko eta erregelamenduzko xedapenek eraentzen dute:

- a) 2/2004 Legea eta berau garatzeko erregelamenduzko xedapenek.
- b) Agentziaren Estatutuak (urriaren 18ko 309/2005 Dekretu bidez onartua).
- c) Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta horiek garatzeko erregelamenduak.
- d) Administrazio ahalak eta ahal publikoak gauzatzean, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- e) Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen legegintza dekretua.
- f) 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Agentziaren Estatutuak dioenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontratazio-araubidea eta aurrekontua aldatzeko, gauatzeko eta likidatzeko araubidea herri-administrazioentzako indarrean dagoen zuzenbide publikoan aurreikusitakoa izango da. Era berean, kontabilitate publikoaren menpe ere badago.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako ondasun eta baliabide hauek izango ditu bere eginkizuna betetzeko:

- a) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan urtero izendatuko zaion diru-kopurua.
- b) Ematen dizkioten diru-laguntzak eta egiten dizkioten ekarpenak
- c) Bere jardunak ematen dizkion diru-sarrerak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak.
- d) Ondarekoak dituen ondasunak eta baloreak, eta haiek ematen dituzten produktu eta errentak.



e) Legez ematen dioten beste edozein ondasun edo baliabide.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipaturik datozen herri-administrazioetako eta erakundeetako funtzionarioek betetzen dituzte Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoko arauen pean egongo dira.

2018an DBEBren batez besteko plantilla honakoa zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Zuzendaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	16	11,31
Administrariak	4	4
GUZTIRA	21	16,31

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n plantillaren egoera sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Zuzendaria	1		1
Goi-mailako teknikariak	4	7	11
Administrariak	2	2	4
GUZTIRA	7	9	16

## 6.2 Kontuak aurkezteko oinarriak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Agentziak kontabilitate publikoaren arauak eta printzipioak bete behar ditu. 2018ko abenduaren 31ko datarekin aurkeztu dira urteko kontuak, Ekonomia eta Ogasun sailbururen 2012ko ekainaren 25eko Aginduak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean xedatutakoaren arabera.

Kontu horiek jasotzen dituzten dokumentuetan agertzen diren zifrak, hau da, balantzean, ondare-emaitzaren eta emaitza ekonomikoaren kontuan, ondare gordinen dauden aldaketen egoeran, diru-fluxuaren egoeran, aurrekontuaren likidazioaren egoeran eta memorian eurotan daude adierazita.

Urteko kontuak aurreko ekitaldietakoekin alderatuta aurkezten dira. Beraz, 2018 eta 2017ko balantzeko partidak, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria ere adierazi dira.



### 6.3 Aintzatespen- eta balioespen-arauak

#### Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinarene erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie: urtean % 25a.

#### Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie ondasunei zenbatetsi zaien bitzta baliagarriaren arabera, honako portzentajeak ezarrita:

	<u>Portzentajeak</u>
Instalazioak eta altzariak	% 15
Informazio prozesuetarako ekipoa	% 25
Bestelakoak	% 20

Lehendik dauden ondasunetan egiten diren hobekuntzek aktiboen bitzta baliagarria luzatzen badute, kapitalizatu egiten dira. Bestalde, konpontzeko eta mantentzeko gastuak gertatzen diren unean kargatzen zaizkie emaitzei. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean jasotzeko, elementuaren kostua eta metatutako amortizazioa ezabatu egiten dira.

#### Aktibo eta pasibo finantzarioak

Kobratu eta ordaindu beharreko partidak balio nominala kontuan hartuta erregistratzen dira.

#### Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak kontabilitatean jasotzeko, horiek sortzen diren aldia hartzen da kontuan, eta ez noiz kobratzen edo ordaintzen diren.

Jasotako transferentziak sarrera moduan erregistratzen dira eskubidea sortzen den ekitaldian bertan.



#### 6.4 Ibilgetu ukiezina

Hona 2018ko ekitaldiko mugimenduak:

KOSTUA	Aplikazio informatikoak
Hasierako saldoa	773.586,00
Altak	11.830,34
Bukaerako saldoa	785.416,34

  

METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Aplikazio informatikoak
Hasierako saldoa	750.010,35
Ekitaldiko dotazioa	7.372,71
Bukaerako saldoa	757.383,06

  

BALIO GARBIA	Aplikazio informatikoak
Hasierako saldoa	23.575,65
Bukaerako saldoa	28.033,28

#### 6.5 Ibilgetu materiala

Hona 2018ko ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan eta horien amortizazio metatuetan egon diren mugimenduak:

KOSTUA	Makineria eta tresneria	Instal. teknikoak eta beste instal. batzuk	Altzariak	Ekipo informatikoak	Beste inbertsio batzuk	Inm. guztira Materiala
Hasierako saldoa	387,80	11.633,90	186.369,15	3.643,86	5.005,80	207.040,51
Bukaerako saldoa	387,80	11.633,90	186.369,15	3.643,86	5.005,80	207.040,51

METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Makineria eta tresneria	Instal. teknikoak eta beste instal. batzuk	Altzariak	Ekipo informatikoak	Beste inbertsio batzuk	Guztira
Hasierako saldoa	387,80	11.633,90	166.027,91	3.643,86	5.005,80	186.699,27
Ekitaldiko dotazioa			4.749,76			4.749,76
Bukaerako saldoa	387,80	11.633,90	170.777,67	3.643,86	5.005,80	191.449,03

BALIO GARBIA	Makineria eta tresneria	Instal. teknikoak eta beste instal. batzuk	Altzariak	Ekipo informatikoak	Beste inbertsio batzuk	Guztira
Hasierako saldoa			20.341,24			20.341,24
Bukaerako saldoa			15.591,48			15.591,48



Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikulua xedatzen duenez, Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Bulegoaren ondasun eta eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarekoak dira.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak EJE S.A.ri alokatutako instalazioetan burutzen du bere jarduera.

## **6.6 Transferentziak, diru-laguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk**

### **6.6.1 Transferentziak eta sarrerak**

DBEBk transferentzia bidez jasotzen dituen sarrerak urtero izendatzen diren Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako diru-kopurua dira.

Beste alde batetik, Agentziak dituen metatutako diruzaintzaren soberakinak erabiltzeko dauden aukera guztiak ikusita, uste dugu soberakinok erabili behar ditugula DBEBk, bere eskumenak gauzatzeko asmoarekin erabiltzea aurreikusita dituen jarduerak atenditzeko beste baliabide bat balitz bezala, gainontzeko sarrerekin ezinezkoa delako behar bezala finantzatzea aurreikusita dauden gastuak. Metatutako diruzaintzaren soberakinak ohiko aurrekontuan txeratzeko proposamena egiteko eskumena DBEBren zuzendariak du, dagokion aurrekontu aurreproiektua onartzean eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzean, EAEko aurrekontu orokorretan txertatzeko.

Ondorioz, erabaki dugu diruzaintzako soberakin zati bat erabili dezakegula oso-osorik bi helburu hauekin:

- 1) Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egiten ari den ekarpen txikiagoak konpentsatzea.
- 2) Kudeaketa planetan aurreikusitako proiektuak eta gastuak gauzatzeko, kontuan izanda ez genukeela horretarako finantziatorik, ez balitz gure soberakinaren zati bat erabilita.
- 3) Ondare sarreretatik etorri ohi den finantzazioaren gaitasun eza konpentsatzea (bankuko interesak).

### **6.6.2 Diru-laguntzak eta beste gastu batzuk**

Atal honetan aipatu behar dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2018ko irailaren 6ko Ebazpenak datuak babesteko sarien VI. edizioaren deialdia egin zuela.

Deialdiaren 2. oinarrian ezarri zen lehen aldiz ondoko sariak jendaurreko gorazarrea, egiaztagiria eta ohorezko sariaz gain, diru-dotazio bat ere jasoko zutela: Datu Babesaren Ikerkuntza Arloko Saria, Datu Babesaren Komunikazio eta Sormenaren Arloko Saria eta Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenen Saria. Baina, aldi berean xedatzen du saritutako pertsonak edo entitateek izaera juridiko publikoa badute, dotazio ekonomiko horiek ez direla gauzatuko.

Epaimahaiak ebazpena eman eta saritutako pertsonen eta entitateen zerrenda argitaratu ostean, deialdiko oinarrietan adierazitako dotazio ekonomikoak ordaindu ziren. Guztira 3.500 euro.





## 6.7 Aurrekontuz kanpoko eragiketak

### 6.7.1 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak

Atal honetako saldoak bere baitan hartzen ditu administrazio publiko hartzekodunei ordaindu gabeko zenbatekoak: PFEZren eta langileen kargurako kotizazio sozialen ondoriozko atxikipen guztiak.

	HASIERAKO SALDOA	ORDAINKETAK	SARRERAK	BUKAERAKO SALDOA
OGASUN PUBLIKOA HARTZEKODUNAK. BESTE KONTZEPTU FISKAL BATZUK	64.908,29	240.702,63	249.206,97	73.412,63
GIZARTE AURREIKUSPENEN ERAKUNDEAK, HARTZEKODUNAK	3.083,45	36.418,90	36.354,91	3.019,46
	<b>67.991,74</b>	<b>277.121,53</b>	<b>285.561,88</b>	<b>76.432,09</b>

## 6.8 Administrazio kontratazioa. Esleipen prozedurak

Hainbat kontratu txiki egin dira DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honakoei buruzkoak dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta informatikako ekipoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta parte hartzea
- Argitaratu beharreko eskuliburuak eta beste zenbait elementu diseinatzea eta editatzea
- Urteko memoriaren argitalpena
- Kalitatearen kudeaketa programetan parte hartzea (EFQM / Q-EPEA)
- Langileen bizi eta istripu aseguruaren polizak
- Kanpoko prebentzio zerbitzua
- Azterlan juridikoak

## 6.9 Aurrekontuei buruzko informazioa

### 6.9.1 Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa.

#### Kobratu beharreko eskubideak

Ez dago kobratu beharreko eskubiderik.

#### Ordaindu beharreko obligazioak



Deskribapena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarrilaren 1ean	Egindako ordainketak
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	13.206,85	13.206,85
PRESTAKUNTZA	1.901,84	1.901,84
ALTZARIAK	2.395,34	2.395,34
ZERBITZU PROFESIONAL INDEPENDIENTEAK	284,15	284,15
BULEGOKO MATERIALA	63,95	63,95
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	1.774,00	1.774,00
LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK	454,21	454,21
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	84,1	84,1
MEZULARITZA	120,07	120,07
ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA	6.528,68	6.528,68
ALTZARIAK	817	817
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	7.158,97	7.158,97
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak	1.460,16	1.460,16
EJIE. Aplik. informatik. manten. eta ustiaketa. Kanpoko beste zerb. batzuk - EAEko erakundeak	19.738,22	19.738,22
<b>GUZTIRA (2017ko ekitaldia)</b>	<b>55.987,54</b>	<b>55.987,54</b>

## 6.9.2 Diruzaintzaren geldikina

### Izakinak

	Saldoa urtarrilaren 1ean	Sarrerak	Ordainketak	Bukaerako saldoa
KUTXAKO FUNTS FINKOA	600,00	0,00	0,00	600,00
AVPD/DBEB KONTU NAGUSIA - GASTUAK	3.555.096,95	1.605.138,26	1.518.088,01	3.642.147,20
AVPD/DBEB KONTU NAGUSIA - SARRERAK	45.807,96	3.296,00	0,00	49.103,96
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.601.504,91</b>	<b>1.608.434,26</b>	<b>1.518.088,01</b>	<b>3.691.851,16</b>



## Diruzaintzaren egoera

	2018	2017
Diruzaintza ekitaldiaren hasieran	3.601.504,91	3.686.644,83
<b>KOBRANTZAK</b>		
<b>AURREKONTUETAKOAK</b>		
EKITALDIAN ONARTUTAKO ESKUBIDEENGATIKO ZORDUNAK	1.606.959,00	1.365.012,00
ITXITAKO EKITALDIETAKO ESKUBIDEENGATIKO ZORDUNAK	960,00	
DIRUZAINZAKO AURREKONTUARI LOTUTA EZ DAUDEN ERAGIKETETAKOAK		
ERAK. PUBLIKO HARTZEKODUNAK KONTZEPTU FISKALENGATIK	249.206,97	242.172,17
GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEAK, HARTZEKODUNAK	36.354,91	35.577,25
Aplikatzeko dauden ordainketak	203,00	
<b>KOBRANTZAK GUZTIRA</b>	<b>1.893.683,88</b>	<b>1.642.761,42</b>
<b>ORDAINKETA</b>		
<b>K</b>		
<b>AURREKONTUETAKOAK</b>		
URTEKO EKITALDIAN AGINDUTAKO ORDAINKETENGATIKO HARTZEKODUNAK	1.470.228,56	1.418.107,63
ITXITAKO EKITALDIAN AGINDUTAKO ORDAINKETENGATIKO HARTZEKODUNAK	55.987,54	27.322,20
DIRUZAINZAKO AURREKONTUARI LOTUTA EZ DAUDEN ERAGIKETETAKOAK		
AURREKONTUZKOAK EZ DIREN ZORDUNAK		350
ERAK. PUBLIKO HARTZEKODUNAK KONTZEPTU FISKALENGATIK	240.702,63	246.653,31
GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEAK, HARTZEKODUNAK	36.418,90	35.265,20
Aplikatzeko dauden ordainketak		203,00
<b>ORDAINKETAK GUZTIRA</b>	<b>1.803.337,63</b>	<b>1.727.901,34</b>
<b>Diruzaintza ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>3.691.851,16</b>	<b>3.601.504,91</b>

## Diruzaintzaren geldikina

	2018	2017
(a) Kobratzeko Dauden Zordunak:	350,00	1.940,00
+ Sarrera Aurrekontuetakoak, aurtengoak:		1.590,00
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak:	350,00	350,00
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak		
(b) Ordaintzeke dauden Hartzekodunak:	116.035,73	123.776,28
+ Gastu Aurrekontuetakoak, aurtengoak:	39.603,64	55.987,54
+ Gastu Aurrekontuetakoak, Itxitakoak:		
+ Sarrera aurrekontuetakoak:		
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak:	76.432,09	67.991,74
- Aplikatzeko dauden ordainketak		203,00
(c) Diruzaintzako Funts Likidoak:	3.691.851,16	3.601.504,91
<b>(d) Diruzaintzako gerakin likidoa ( a - b + c ):</b>	<b>3.576.165,43</b>	<b>3.479.668,63</b>



### Diruzaintzaren aldaketa, metatutako aurreko soberakinarekin alderatuta

	2018	2017
Diruzaintzako Soberakin Likidoa 01/01	3.479.668,63	3.587.161,80
(+/-) Ekitaldiko aurrekontu-erantz	97.126,80	(-107.493,17)
Diruzaintzako Soberakin Likidoa 12/31	3.576.795,43	3.479.668,63
Itxitako ekitaldietako eskubideak kitatzea	(- 630,00)	
Diruzaintzako Soberakin Likidoa 31/12 doitu	3.576.165,43	3.479.668,63



## 6.10 Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak

RATIOAK	2018	FORMULA	AZALPENA
GASTU AURREKONTUAREN BETEARAZPENA	% 76,69	$\frac{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Ekitaldian onartutako kredituen konturako obligazioak
SARRERA AURREKONTUAREN BETEARAZPENA	% 81,63	$\frac{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Onartutako eskubide garbiak, ekitaldian onartutako kredituekiko
ORDAINKETEN BETETZE MAILA	% 97,38	$\frac{\text{ORDAINDUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{OBLIGAZIO AITORTUAK}}$	Ordainketen kudeaketaren portaera ebaluatzen du
KOBRANTZEN BETETZE MAILA	% 100,00	$\frac{\text{LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Kobrantzen kudeaketaren eraginkortasuna ebaluatzen du
LANGILEEN GASTUEN INDIZEA	% 74,07	$\frac{\text{LANGILE GASTUAK}}{\text{GASTU ARRUNTAK}}$	Balio du jakiteko zenbatekoa den langileen gastuen portzentajea operazio arruntekiko
INBERTSIOEN GARRANTZIAREN INDIZEA	% 0,78	$\frac{\text{KAPITAL ERAGIKETENGATIK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK GUZTIRA}}$	Egindako inbertsioen garrantzi kuantitatiboa izenpetutako obligazioekiko
INBERTSIOEN FINANTZAKETA INDIZEA	% 100,74	$\frac{\text{KAPITAL OPERAZIOEN ONDORIOZKO SARRERAK}}{\text{KAPITAL OPERAZIOEN ONDORIOZKO GASTUAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzen diren kapital operazioetako gastuen adierazlea
AUTOFINANTZAKETA ARRUNTERAKO MARJINA	% 93,92	$\frac{\text{OPERAZIO ARRUNTEN ONDORIOZKO OBLIGAZIOAK}}{\text{OPERAZIO ARRUNTEN ONDORIOZ ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzen diren operazio arruntetako gastuen adierazlea
FINANTZAKETA GAITASUNA	% 6,04	$\frac{\text{AURREZKIA/DEFIZITA}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Balio du ebaluatzeko ea ze finantzaketa gaitasun dagoen aurrekontu ekitaldiarekiko
BATEZ BESTEKO KOBRAKETA ALDIA	-	$\frac{\text{ESKUBIDEAK KOBRATZEKE*360}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Aurrekontu ekitaldia bukatzean kobratzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du
BATEZ BESTEKO ORDAINKETA ALDIA	9,44	$\frac{\text{OBLIGAZIOAK ORDAINTZEKE*360}}{\text{OBLIGAZIO AITORTUAK}}$	Aurrekontu ekitaldia bukatzean ordaintzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du



### **6.11 Ekonomia- eta ondare-emaitza eta aurrekontuaren emaitza uztartzea**

Segidan ikus daiteke nola uztartzen diren 2018ko kontabilitate-emaitza eta aurrekontuaren betearazpenak sortutako emaitza.

<b>EKITALDIKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) GARBIA</b>	<b>96.834,67</b>
<b>GUTXIAGO: EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN PARTE EZ DIREN AURREKONTU GASTUAK</b>	<b>11.830,34</b>
Ibilgetu inmateriala eta eraikitako edo beste erakunde batzuei erositako aktiboak	11.830,34
<b>GEHIAGO: AURREKONTU-EMAITZEAN EZ DAUDEN GASTUAK</b>	<b>12.122,47</b>
Ibilgetuaren amortizazioa	12.122,47
<b>EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA</b>	<b>97.126,80</b>



## 7 PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako misioa du ezarrita: "Euskal administrazio publikoentzat eta herritarrentzat erreferentziazko kontrol agintaritza independentea izatea, pertsonen pribatutasunari eta intimitateari dagokienez, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea errespetatu dezaten zainduz".

Bulegoaren Ikuspenaren xedea da lortzea gizarte bat eratzea, non herritarrek datu pertsonalen esparruan dituzten eskubideak ezagutzen dituzten eta jakin dakiten nola izan behar den tratatua beraien informazio pertsonala; non herritar ororen eskubide guztiak errespetatuak diren eta datu babeserako eskubidearekin ponderaturik erabiliak diren, eta non euskal administrazio eta erakunde publikoek modu leialean, legearen arabera, arduratsu eta seguru jokatzuz tratatzen dituzten datu pertsonalak eta horiekin elkarreragin.

Hori guztia erdiesteko, Bulegoak honako balioak ditu gidari: bere eskumenez baliatzea independentziarekin, herritarrenganako hurbiltasuna eta administrazio publikoekiko lankidetzeta, Bulegoan lan egiten duten pertsonen garapena eta asebetetzea, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza kudeaketaren esparruan.

### 7.1.1 DBEBren jarduerak

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak 2/2004 Legearen 17. artikuluan daude xedatuta. Hona hemen asmo eta helburu garrantzitsuenak:

1. Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarrrik gabe uzteko eskubideari dagokienez.
2. Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea, eta hala badagokio, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea.
3. Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonei.
4. Ikuskatzeko ahalmena erabiltzea, eta beharrezkoa bada, zehatzeko ahalmena ere bai.
5. Datu pertsonalen fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea.
6. Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea.
7. Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

Era berean, 18. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta DBEBn barruan egongo dela xedatzen du; eta 2/2004ko Legeak arautzen dituen datu pertsonaldun fitxategiak eta ereduak kodeak inskribatzeko eginkizuna duela ere xedatzen du. Bere helburua da, behar duen informazioa erregistroan eskatuz, edonork jakin ahal izatea ea bere datu pertsonalik tratatzen ari ote diren, zertarako ari diren hori egiten eta nor den arduraduna.



Baina organo horrek egun duen egitura bertan behera geratu zen 2018ko maiatzaren 28an, data horretan sartu zelako indarrean Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua.

Horrenbestez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak esleituta dituen betekizun horiek denak hainbat jardueraren bidez burutzen ditu. Jarduerak sailkatzeko, bi multzo nagusi bereizi dira. Batetik, Bulegoaren ohiko jarduerak daude, hau da, Bulegoak legez araututako ahalak baliatzeko burutu behar dituenak; eta, beste alde batetik, datu babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak daude. Azken horietarako, hainbat jomuga estrategiko ezarri dira.

### **7.1.2 Legez araututako ahalak baliatzeko ohiko jarduerak**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, Kontrol Agintaritzaren izaera duenez, baditu hainbat eginkizun finkoak direnak eta beti baliatzen dituenak, 2/2004 Legeak esleitzen dizkion kontrol, ikuskatze, aholkularitza eta erregistro eginkizunetatik eratorriak.

#### **Kontrol eginkizuna**

1. Eskubideak Babesteko Prozedurak Izapidetzea. Herritarrak, atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzearen ondoriozko prozedurak dira.
2. Salaketa Prozedurak Izapidetzea. Datu babesaren araudiaren aurkakoak izan daitezkeen portaerengatik aurkeztutako erreklamazioei dagozkien prozedurak dira.
3. Informazio Eginbideak izapidetzea. Ofizios irekitzen dira datu-babesaren arloko araudiaren aurkakoak izan daitezken egintzengatik.
4. Administrazio publikoen arau-hauste eta zehapen espedienteak izapidetzea, jardueraren batek datu babesaren arloko araudia urratzen duelako susmorik dagoenean.

#### **Ikuskaritza eginkizuna**

1. Frogatzeko ikuskapenak egitea, kontrol espediente batzuen instrukzioarekin lotuta.
2. Prebentzioko ikuskapenak egitea, diagnostiko eta egokitzapen xedearekin.

#### **Aholkularitza eginkizuna**

1. 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorrei buruzko proiektuen gaineko legezotasun txostenak egitea eta nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko txostenak egitea.
2. Bestelako araugintza-proiektuei buruz eskatzen dituzten legezotasun txostenak bidaltzea, datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez.
3. Administrazioek eta pertsona pribatuek, fisikoek nahiz juridikoek datu pertsonalen babesaren arloko gai jakinei buruzko zalantzak argitzeko eskatuz egindako kontsultei erantzuteko txosten juridikoak egitea.
4. DBEBri lege-aholkularitza ematea.





## **Datuak Babesteko Erregistroa**

2018ko maiatzaren 28a arte, data horretan sartu zelako indarrean Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua.

1. Datu pertsonalen fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko eskaerak Erregistroan inskribatzea.
2. Inskribatutako fitxategiak argitaratzea, eta erraz kontsultatzeko moduan jartzea web orri batean.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Pertsonalak Babesteko Erregistroan aldian-aldian jasotakoak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziako Erregistro Nagusira egindako aldizkako bidalketak kudeatzea.

### **7.1.3 Datu babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak**

Datu babeserako eskubidea sustatzeko ekintzak, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza dira, beti ere Bulegoak esleituta dituen ahalen esparruan, bere jardueraren ardatzak, administrazioaren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak zabaltzeari, hedatzeari eta ezagutzeari dagokionez.

Hori dela eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak pertsonen eskubideak eta erakundeen betebeharrak sustatzen ditu. Horrez gain, aholkularitza aditua ematen du eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzen du, gatazkak konpontzen ditu (eskubideak babestea, arau-haustea deklaratzeko eta abar) eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzen ditu.

Jarduera guzti horiek lau ardatz nagusitan antolatu dira, eta horietako bakoitzarentzat erronka hauek finkatu dira besteak beste:

#### **Ardatza: Herritarrak**

- Lortzea herritarrek baliatzea datu babeserako eskubidea, eskubidearen berri dutelako, DBEB dagoela dakitelako eta eskubideez baliatzea erraza eta ezaguna delako.

#### **Ardatza: Administrazio publikoak**

- Lortzea administrazioek datuak babesteko eskubidea betetzea.

#### **Ardatza: Aliatu estrategikoak**

- DBEBk dituen helburuak lortzen laguntzen duten aliantza estrategikoak izatea.

#### **Ardatza: Barne antolaketa**

- Bulegoko pertsonen kudeaketa eta lanbide garapenaren esparruan hobekuntzak eta berrikuntzak egitea.



#### 7.1.4 2018AN BURUTUTAKO JARDUERA AIPAGARRIENAK

2018an datuak babesteko oinarrizko eskubidea sustatzen jarraitu dugu, bai eta etengabeko prestakuntza eta berrikuntza ere, Agentziaren eskumenak baliatuz.

Honako haiek dira egin diren jarduera aipagarrienak:

- Herritarrei zuzendutako komunikazio politikak diseinatzea.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldietarako, mintegietarako eta jardunaldietarako edukiak eta materialak garatzea.
- Administrazio publikoei zuzendutako hitzaldietarako, mintegietarako eta jardunaldietarako edukiak eta materialak garatzea.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldiak, mintegiak eta jardunaldiak sustatzea eta ematea.
- Administrazio publikoei zuzendutako hitzaldiak, mintegiak eta jardunaldiak sustatzea eta ematea.
- 2018ko Datu Babesaren Nazioarteko Eguna antolatzea.
- Web orria berritzea eta edukiak eguneratzen jarraitzea.
- Eskubideez baliatzeko informazioa hobetzea eta ereduak eskuragarri jartzea.
- Agentziaren lanaren zabalkundea egitea (komunikabideen, web orriaren, sare sozialean eta abarren bidez).
- 2017ko Memoria idaztea, aurkeztea eta zabaltzea (banaketa eta web orria).
- Ikuskapen sektorialak egitea administrazio publikoetan.
- Administrazio publikoei zuzendutako edukiak eguneratzea.
- Materialak garatzea eta kontzientziazio eta trebakuntza saioak sustatzea eta ematea, administrazio publikoei zuzenduta.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta datu babesari buruzko lanak sustatzea.
- DBEBren lehentasunezko/ohiko solaskideekiko harremanak sendotzea.
- Udal elkarteekiko lankidetzarekin jarraitzea.
- Legebiltzarrarekiko eta beste erakunde parlamentario batzuekiko harremanak bultzatzea, datu babesari buruzko araudia aztertzeke eta eguneratzeko legedi autonomikoan.
- Datuak babesteko estatuko agentziekin ditugun proiektu komunak garatzen segitzea eta lan taldeetan parte hartzea.
- Bulegoaren barne ezagutzaren kudeaketa eta zabalkunde sistema sendotzea eta hobetzea.
- Prozedurak izapidetzea eta irizpenak ematea.
- Frogatzeko ikuskapenak egitea, espediente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- DBEBren jardueraren gaineko itzulpen lanak egitea, eta datu babesaren esparruko terminologia sendotzea.
- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa kudeatzea (2018ko maiatzaren 25a arte).
- Gastua arrazionalizatzeko neurriak ezartzea.
- DBEBren plantilla sendotzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana berrikustea.
- DBEBren etengabeko prestakuntza erraztea.
- DBEBren doktrinaren zabalkundea egiteko edukiak editatzea.
- Datu babesaren kultura, zabalkundea, ikerketa eta ezagutza sustatzea eta gizartean hedatzea, DBEBren sarien bidez.
- Kudeaketaren kalitatearekin konprometituta dauden erakundeetan parte hartzea.



**DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA**  
**AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS**

---

**AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS / DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA**aren zuzendari Margarita Uria Etxebarria andreak, 2018KO ABENDUAREN 31N bukatutako ekitaldiko kontuak sinatzen ditu, bat datorrela adieraziz, Vitoria-Gasteizen 2019ko otsailaren 22an. Honako agiriek osatzen dituzte urteko kontuak:

- **BALANTZEA**
- **ONDARE-EMAITZAREN ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA**
- **ONDARE GORDINAREN ALDAKETA-EGOERA**
- **DIRU-FLUXUAREN EGOERA**
- **AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA**
- **MEMORIA**

---

**Manuel Valín López jn.,**  
**Idazkari nagusia**

---

**Margarita Uria Etxebarria and.,**  
**Zuzendaria**

---